

# Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak



**GOIAZ! 2016**

*Lanbide Heziketaren Azoka*

**Martxoaren 15ean eta 16an;**

Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza

Enplegu zerbitzuak

Ekintzaileentzat zerbitzuak

Talerrak eta hitzaldiak

Aparatuak eta esperimentuak



goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Economía Sostenible, Landa Ingarmentu  
eta Lurriketa Sustatze Departamentua

**ikasmina:**

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**I**ñigo Agirrezabal bergararra Miguel Altuna institutuan Lanbide Heziketako goi mailako fabrikazio mekanikoko bigarren maila bukatzen ari da, eta, bitartean, Dual sistemaren bitartez, TTT taldeko Ikankronitek enpresan lanean dabil. Datorren urtean Ingeniaritza ikasten hasteko asmoa dauka.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Batxilergoa egiten hasi nintzen, lagunekin jarraitzearren, baina laster konturatu nintzen ezingo nuela behar bezala bukatu, eta mekanizatuko erdi mailako ziklo bat egitera etorri nintzen Miguel Altunara. Orain, goi mailako zikloa bukatzen nabil.

Dual sistemaren bitartez, enpresan egotean, zer ikasten da?

Eskolan gauza batzuk ikasten dira, baina askoz gehiago ikasten da enpresan; egunero gauza berriak, lan-ohiturak, eta batzuetan ardura handiko lanak ere. Lankide-irakasle onak dauzkat.

Eta nola funtzionatzen du Dual sistema horrek?

Lehenengo kurtsua amaitutakoan, udan 7 ordu lan egiten dira; bigarren mailan eskolak daukagunean, 3 ordu eta erdi; eta praktikak tokatzen direnean, berriz, 7 ordu. Dirutxo bat kobratzen da, baina garrantzitsuena enpresarekin daukadan kontaktua da. Enpresak ezagutu egiten nau, erdi mailatik enpresa berean nabil, eta hori abantaila bat da, bai niretzat, eta baita enpresakoentzat ere.

Inguruko enpresak laguntza izan al zenuen LH aukeratzeko orduan?

Hasieran, etxean, ez zuten aukera onena



**"Lan-irteera asko dauzka. Nire gelako 15 lagunetatik, guztiok ez bada, ia guztiok lana izango dugu bukatzean."**

bezala ikusten, baina orain beste iritzi bat dute.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Nik praktikan ikasten dut, eginez, eskuekin, eta Lanbide Heziketak aukera hori eskaintzen dit. Gainera, enpresan lan eginez, ikasteko aukera ere eman dit; erdi mailan nengoenetik enpresa berarekin nabil. Eta ingeniari-tza duala ere bertan egiteko asmoa daukat, makina-erremintaren arloan.

**Lanbide heziketak laguntzen al du lana topatzen?**

Bai, dudarik gabe. Lan-irteera asko dauzka. Nire gelako 15 lagunetatik, guztiok ez bada, ia guztiok lana izango dugu bukatzean.